

CV19 garaiko kontuak: ETXEAN ERE EBALUAZIO HEZITZAILEA ETA HEZIGARRIA

Ebaluazio eta feedback kontuak ateratzen ari zaizkigu behin eta berriro ere etxetik gidatzen ari garen ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetatik. Ikasleak, etxeko helduak edo anai-arreba zaharragoak, ondo ulertzen dute haur eta gazteek egiten ari diren lanak? Ezagutzen dituzte lanak ondo dauden jakiteko irizpideak?

Honako galdera hauetatik abiatuta...

- Proposatzen ari garen lanen helburuak agerian daude?
- Lan bakoitza edo lan sekuentzia egiteko proposatzen da ageriko planifikazio modu (edo moduak)
- Lan horrek, ondo dagoela baieztatzeko zein ezaugarri bere behar dituen agerian dago?
- Ikasleen arteko elkar-lana bultzatzeko estrategiak agerian daude? Bai lanak gauzatzerakoan eta bai ebaluazioa-autoebaluazioa gauzatzerakoan.
- Autoebaluaziorako tresnaxoren bat sistematizatzen da? Oso erabilia izaten ari da "nire ikasketen egunerokoa": Zer egin dut gaur? Zer ikasi dut gaur? Norekin egin dut lan gaur?
- Badakigu ikasleei eskatzen dizkiegun lanekin zer egingo dugun ondoren? Nola jaso-eman feedback-a?

Neus Sanmarti-rekin aritu gara azken bi ikasturte hauetan Ebaluazio hezitzailea eta hezigarria lantzen Donostiako Berritzegunean. Feedback-a izan dugu azken urtean hizpide. **Zer da feedback-a?**

- Lanei eta ikasketei buruzko informazioa ematea da.
- Ikas edo egite maila bat kontuan hartzen badugu, lanen eta ikasketen **momentuko egoera eta erreferentziatzko egoera baten artean dagoen arrakalari buruzko informazioa da.**
 - Informazio hori norberak lantzen badu → autoebaluazioa deituko diogu ("auto-zuzenketa")
 - Informazio hori bi ikasleren artean, bi irakasleren artean edo ikasle-irakaslearen artean lantzen badute → koebaluazioa deituko diogu.
 - Irakasleak ikaslerik gabe lantzen badu informazio hori → zuzenketa deituko diogu.

Bideoa

Ikasleei proposatzen diegun lanaren inguruan, **erreferentziatzko egoera** ematea garrantzitsua da. Honako hiru gauza hauek hartu behar ditugu kontuan irakasleek zein ikasleek erreferentziatzko egoerari buruzko informazioa izan dezagun:

- **Helburuak:** Zein dira lan horren helburuak? Hau da, zer ikasiko dugu lan hori eginez?
- **Ebaluazio irizpideak:** Nola jakingo dugu lan hori ondo egin dagoen edota ikasi beharrekoa ikasi dugun? Zein izango dira ikasiko dugunaren ebaluazio irizpideak?
- **Planifikazioa:** Nola jakingo dugu lanaren planifikazioa egin dugula? Emango ditugun urratsak, pausoak...

Feedback-a aurrera eramateko tresnak erabiltzen ditugu irakasleok gure geletan. Hona hemen, eredu gisa, erabili ditzakegun tresna batzuk:

EBALUAZIO HEZITZAILEA ETA HEZIGARRIA EGITEKO TXANTILOIAK		
	Google dokumentuak	Bestelakoak (Google inprimakiak, Padlet-ak, Trello)
IKASLEAREN AUTOEBALUAZIOA eta HAUSNARKETA	Gaiaren gaineko hasierako hausnarketa	Gaiaren gaineko hasierako hausnarketa (taldean)
	Sentsazioak atazaren hasieran	Sentsazioak atazaren hasieran (taldean)
	Gogoeta atazan zehar	Gogoeta atazan zehar
	Egindako lanaren autoebaluazioa	Egindako lanaren autoebaluazioa
	Egindako lanaren autoebaluazioa eta hobetzeko proposamenak	
	Jardueraren autoebaluazioa	
	Ikerketa lanaren autoebaluazioa	
	Lan hitzarmena	
IKASLEEN ARTEKO KOEVALUAZIOA	Ahozko aurkezpenaren koebaluazioa	
	*Autoebaluaziokoak aditz-pertsona aldatuta	
IRAKASLEAREN FEEDBACK-a	Feedback-aren eskailera	Feedback-aren eskailera
IRAKASLEAK IKASLEAK EBALUATZEKO	Aprendizaiak ebaluatzeko galderak birpentsatzen	
	PPT aurkezpenaren ebaluazioa	
	Irakurriaren ulermenaren ebaluazioa	
	Ahozko komunikazioaren ebaluazioa	
	Idazteko gaitasunaren ebaluazioa	

Feedback-ari buruz kontuan hartu beharreko zazpi gauza:

EL Takeaways

7 Things to Remember About Feedback

- 1** Feedback is not advice, praise, or evaluation. Feedback is information about how we are doing in our efforts to reach a goal. *Grant Wiggins, p. 10*
- 2** If students know the classroom is a safe place to make mistakes, they are more likely to use feedback for learning. *Dylan William, p. 30*
- 3** The feedback students give teachers can be more powerful than the feedback teachers give students. *Cris Tovani, p. 48*
- 4** When we give a grade as part of our feedback, students routinely read only as far as the grade. *Peter Johnston, p. 64*
- 5** Effective feedback occurs during the learning, while there is still time to act on it. *Jan Chappuis, p. 26*
- 6** Most of the feedback that students receive about their classroom work is from other students—and much of that feedback is wrong. *John Hattie, p. 12*
- 7** Students need to know their learning target—the specific skill they’re supposed to learn—or else “feedback” is just someone telling them what to do. *Susan Brookhart, p. 24*

Source: The collective wisdom of authors published in the September 2012 issue of *Educational Leadership*: “Feedback for Learning” (Volume 70, Issue 1).

96 EDUCATIONAL LEADERSHIP / SEPTEMBER 2012

Itzulpena:

1. Feedbacka ez da kontseilua, goraipamena, ebaluazioa... Helburu baten bidean egiten dugun lanari buruzko informazioa da.
2. Gela, akatsak egin daitezkeen leku seguru bat dela badakite ikasleek, ikasteko feedbacka lasaiago erabiliko dute.
3. Ikasleek beren irakasleei ematen dieten feedbacka, irakasleek ikasleei ematen dietena baino indartsuagoa izan daiteke.
4. Feedbackarekin batera kalifikazioa ematen badugu, ikasleek askotan kalifikazioari bakarrik errepatzen diote.
5. Feedback eraginkorra ikaste bidean ematen da, oraindik aldaketak egiteko aukera dagoenean, ez bukaeran.

6. Ikasleek ikasgelan egiten duten lanaren inguruan jasotzen duten feedback gehiena, beste ikasleengandik etortzen zaie; eta feedback horren gehiena ez da zuzena.

7. Ikasleek beren ikaskuntza-helburua zein den jakin behar dute (lortu behar duten trebezi zehatza), bestela, feedbacka zera bihurtuko da: zer egin behar duten esaten dien norbait.

BIBLIOGRAFIA eta MATERIALAK:

- Donostiako Berritzegunean 18-20. Neus Sanmartinekin egindako ikastaro-mintegia: ["Ebaluazio hezigarria eta hezitzailea"](#)

- Gasteizko Berritzeguneko "Ebaluazio hezigarria" ikastaroa <https://sites.google.com/berrigasteiz.com/ebaluazio-hezigarria/hasiera>

- Seven things to remember about Feedback. Feedback-ari buruz kontutan hartu beharreko zazpi gauza

http://www.ascd.org/ASCD/pdf/journals/ed_lead/el201209_takeaways.pdf

Mariaje Ausin - mjesusausin@donosgune.eus

Marisol Uria - marisoluria@donosgune.eus

2020-03-31